

Artearen historia digital parekiderantz: euskal emakume artistak Wikipedian

Maite Luengo Aguirre* eta Marina Arranz Bombín**
*UPV/EHUko eta Université Bordeaux Montaigneko doktoregaia
**Artearen historialaria eta ikertzaile independentea

Euskal testuinguru akademikoan humanitate digitalak garatzen ari diren honetan, ikerketa-ildo berriak zabaltzen ari dira. Horietako bat euskarazko Wikipediak ezagutza-alorrekin duen harremana dugu. Artikulu honetan, zehazki, artearen historia osatzean emakume artistak ikusarazteko duen gaitasunaren azterketa burutu dugu. Helburu nagusia izan da autoreen ikusgaitasunerako Wikipediak eskaintzen dituen aukera eta erronken inguruan hausnartzea. Horretarako, lehendabizi artearen historiako kontaketa oinarriak berrikusi ditugu, irizpide tradizioaletatik abiatu eta gero, berrikuspen feministetan kokatu gara, Wikipediak eskaintzen dituen aukerak behatzeko. Ondoren, Wikipediako euskal artisten sarrerak aztertu ditugu. Alde batetik, artista kopuruen genero-banaketak hartu ditugu kontuan joerak azaleratzeko; bestetik, existitzen diren biografien ezaugarriak aztertu ditugu, idazkera, adin-joera eta irudien presentzia arreta jarritz. Era horretan, euskal emakume artistek Wikipedian duten oraingo egoera argitu eta, etorkizunera begira, ikerketa-ildo hau garatzeko oinarritzko ezagutza eskainiko dugu.

GAKO-HITZAK: Wikipedia · Emakume artistak · Humanitate digitalak · Artearen historia.

Towards an Egalitarian History of Art: Basque Women Artists in Wikipedia

As digital humanities develop within the Basque academic context, new lines of research are expanding. One of those lines is the relationship between the Basque Wikipedia and different fields of knowledge. In this article, we will specifically examine the ability to visualize women artists in Wikipedia in order to provide a more complete History of Art. As such, our main goal is to reflect on the opportunities and challenges that Wikipedia offers for the visibility of authors. To this end, we have first revisited the foundations of the discourse surrounding the history of art, starting from traditional viewpoints before settling on feminist revisions. We have then analysed the entries of Basque artists on Wikipedia. On the one hand, we will take into account the gender distributions of the number of artists in order to emerge trends; on the other hand, we will examine the characteristics of existing biographies, focusing on the presence of writing, age trends, and images. In this way, we will shed light on the current situation of Basque women artists on Wikipedia and provide basic knowledge for the development of this line of research in the future.

KEY WORDS: Wikipedia · Women artists · Digital humanities · History of art.
<https://doi.org/10.26876/uztaro.121.2022.1> *Jasotze-data:* 2021-09-06 *Onartze-data:* 2021-10-07

1. Sarrera: ikerketa honetarako beharra eta helburuak

Euskal testuinguruan, humanitate digitalak garatzen ari dira, alegia, teknologia digitalen eta humanitateen arteko zubi-lana egiten ari dira gorabidean dagoen diziplina horretako ikertzaileak. Izan ere, esparru akademiko berri horrek humanitate tradizionalak ulertu, ikertu eta zabaltzeko bestelako erak sortu eta eskaintzen dizkigu. Horretarako, tresna eta plataforma digitalek ahalbidetzen dituzten aukera berriak baliatzen dira, hala nola ikerketa honen oinarri izango den Wikipedia.

Orobat, ikuspegi feministak gero eta garrantzi handiagoa lortu du humanitate digitalen esparruan, emakumeek teknologian eta historian izan dituzten bazterketei aurre egiteko xedearekin. Horrela, ekimen eta proiektu ugari sortu dira, bai Wikipediatik kanpo eta bai Wikipedia barnean. Azken modalitate horri dagokionez, Euskal Herrian, nazioarteko joerari jarraikiz, Wikipediaren bitartez emakumeak historiaren parte izateko antolatutako topaketak ugariak dira. Topaketa horien bitartez, eta entziklopedia aske horrek eskaintzen dituen aukerak baliatuz, emakumeen figurak eta haien lorpenak aldarrikatzeko lan handia egin dute zenbait euskal editorek.

Izan ere, parekotasunerako bidean Wikipediak baliabide aproposak eskaintzen ditu esku-hartze feministak egiteko. Ezagutzaren eta jendartearen arteko lotura zuzenak ezartzeaz gain, edozein erabiltzailek sarrera bat lankidetzan sortzeko aukera eskaintzen du, ezagutzaren eraikuntza eta zabalkuntza eraldatuz. Hala ere, horretarako tresna lagungarria izan daitekeen arren, genero-desparekotasunari lotutako arazoak ere badituela aipatzea beharrezkoa dugu.

Hurrengo orrialdeetan zehar, artearen historia parekidearen garapenari lotuta Wikipediak eskaintzen dituen aukerak eta erronkak abiapuntutzat joko ditugu. Humanitate digitalak euskal testuinguruan garatzen ari diren diziplina izanda, artearen historiaren eta Wikipediaren arteko harremana ikuspuntu feministatik ikertzea dugu helburu, bertan existitzen diren dinamiken inguruan gogoeta eginez. Artikuluaren emaitzen bitartez, euskal humanitate digitalen ikerketari ekarpena egitearekin batera, Euskal Herriko artearen historiak esparru digitalean duen presentzia hobeto ulertzeko parada izango dugu. Halaber, etorkizunean antzeko azterketarik egin nahi izatekotan, abiapuntutzat baliagarria izatea espero dugu.

Artikuluaren egiturari dagokionez, hasteko, baliatutako metodologiaz mintzatuko gara, ikerketarako erabilitako tresnak aurkeztuz eta mugatuz. Ondoren, «3. Emakume artisten historiatzea eta Wikipedia: erronkak eta aukerak» atalean, artearen historiako diziplinaren narrazio-eraketan murgilduko gara, eta Wikipediaren ezaugarriek aipatutako diziplinaren diskurtso-eraketan izan dezaketen eragin potentzial berdintzailea aztertuko dugu. Gero, Wikipediak genero-berdintasunari lotutako erronken inguruan egingo dugu gogoeta. Horretarako, Wikipediaren genero-desparekotasunaren inguruko edukiei zein edizio-lanei buruzko ikerlanak aurkeztuko ditugu, baita emakumeen ikusgaitasuna areagotzeko egindako zenbait ekimen ere. Horren ostean, «4. Euskal emakume artisten presentzia euskarazko Wikipedian» izeneko puntuan, euskal emakume artistek Wikipedian duten presentzia izango dugu ikergai. Hala, euskal artearen inguruko zerrenda eta kategoriak behatuko ditugu, diziplinen araberako joerak ezagutzeko. Eta, azkenik, biografietan jarriko dugu arreta,

idazkeraren ezaugarriek, adinaren araberako joerak eta irudiek horretan duten tokia aztertzeko xedearekin.

2. Metodologia

Metodologiari dagokionez, artikularen hirugarren atalerako, berrikuspen bibliografiko kritikoa osatu dugu. Artearen historiaren diskurtsoa aztertzeko, nazioarteko ekarpenetatik euskal testuinguruko artikuluetara igaroko gara; artearen historia feministaren amatzat jotzen den Linda Nochlin-en ekarpenetik, Ane Lekuona ikertzaileak, ikuspuntu feministatik, azken urteotan egindako euskal artearen berrikuspenera. Gainera, Wikipediari lotutako azterketak ere landu ditugu, azken hamarkadako ikerketak behatuz; hau da, 2011-2021 artean garatutako artikulua, guztiak nazioartekoak, oraindik ere euskaraz ez baita ildo horri buruz idatzi esparru akademikoan.

Laugarren atalean, Wikipedian eskuragarri dauden euskal artista garaikideak izan ditugu ardatz. Horrela, *Euskal Herriko artistak* kategorian¹ eta zerrendan² bildutako izenak ditugu abiapuntu, Euskal Herrian jaiotako artistak biltzen dituzten sorta zabal eta osatuena baitira Wikipedian.

Autore multzoen zabaltasuna dela eta, ezinbestekoa suertatu zaigu ikerketa definitzearen zenbait muga ezartzea. Beraz, XIX. mendetik aurrera aritutako artistak daude azterketa honen oinarrian, Euskal Herriko zazpi lurralde historikoetakoak. Baina zerrendetan dauden atalei dagokienez, aukeraketa egin dugu: margolaritza³, ilustrazioa⁴, marrazkilaritza⁵, eskultura⁶, argazkilaritza⁷ eta performancea⁸ puntuak izan dira gure aztergaiak. Diziplina horietan txertatutako artistak ez ezik, azpikategoria propiorik ez duten bideo-arte eta bideo-instalazio modalitateak lantzen dituztenak ere kontuan hartu ditugu; baita ere *Emakume artistak* kategorian⁹ soilik dauden euskal sortzaileak. Labur esanda, lan honen abiapuntua arte garaikidea izanik, mugatzerakoan egokiena iruditu zaigu bai Wikipedian, bai erakusketetan egon ohi diren diziplinetan zentratzea. Ondorioz zinemari, musikari edota literaturari lotutako autoreak ez ditugu kontuan izan. Beraz, artikuluan zehar adierazitako datu, zenbaki eta grafikoak irizpide horiek kontuan hartuz lortutakoak dira.

1. Euskal Herriko artistak biltzen dituen kategoria Wikipedian. Arte mota eta jaiotza-lekua kontuan hartzen dituzten azpizerrendetan dago antolatua: <https://eu.wikipedia.org/wiki/Kategoria:Euskal_Herriko_artistak> (Kontsulta: 2021-09-03).

2. Euskal Herriko artistak alfabetikoki eta arte motaren arabera eskuragarri jartzen dituen zerrenda: <https://eu.wikipedia.org/wiki/Zerrenda:Euskal_Herriko_artistak> (Kontsulta: 2021-09-03).

3. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Kategoria:Euskal_Herriko_margolariak> (Kontsulta: 2021-09-03).

4. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Kategoria:Euskal_Herriko_ilustratzaileak> (Kontsulta: 2021-09-03).

5. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Kategoria:Euskal_Herriko_marrazkilariak> (Kontsulta: 2021-09-03).

6. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Kategoria:Euskal_Herriko_eskultoreak> (Kontsulta: 2021-09-03).

7. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Kategoria:Euskal_Herriko_argazkilariak> (Kontsulta: 2021-09-03).

8. Ez dago berezko performance azpikategoriarik Euskal Herriko artistak kategorian, baina bertan sakabanatuta eta zerrendako Performancea atalean topatzen ditugu, azken hori esteka honetan ikusgai: <https://eu.wikipedia.org/wiki/Zerrenda:Euskal_Herriko_artistak> (Kontsulta: 2021-09-03).

9. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Kategoria:Emakume_artistak> (Kontsulta: 2021-09-03).

Bukatzeko, Wikipediaren datu-bilketa 2021eko otsaila eta uztaila bitartean gauzatu dugula aipatzea garrantzitsua iruditzen zaigu, aldi horretako argazkia erakusten baitu. Datuen bilketa-data zehazte aldera, informazio-taula bakoitzean data zehazten da. Izan ere, Wikipedia etengabe aldatzen ari den plataforma denez, litekeena da aldaketaren bat egotea guk emandako datuen eta irakurleak artikulua irakurtzen duen uneko errealitatearen artean. Besteak beste, UEUK eta EWKEk sustatutako *Emartistak 2000-2020* ekimenaren barruan egindako esku-hartzeen aurretik jasotako datuak dira¹⁰.

3. Emakume artisten historiatzea eta Wikipedia: erronkak eta aukerak

3.1. Artearen historiaren diskurtso-eraketak

Artearen Historiaren diskurtsoaren eraikuntza tradizionala orokorrean handitasunaren eta zehazki jenioaren irudiaren inguruan garatu zen hasiera-hasieratik, artistaren kontzeptua, zentzu modernoan ulertzen dugun moduan, eratzen hasi zenetik hain zuzen ere. Artista bikainak biografien bitartez historiatzeko joerari Berpizkunde garaiko Giorgio Vasarik eman zion hasiera, 1550ean argitaratutako *Le vite de' più eccellenti pittori, scultori, e architettori* liburuarekin. Humanismoaren garaian plazaratutako horretan emakume artistak salbuespen gisa aipatzeko joera ageri zen jada. Izan ere, lehendabiziko edizioan emakume bakarra ageri zen, Properzia de'Rosi, gainontzekoak gizonezkoak ziren. Bikaintasunean oinarritutako sistema horri jarraikiz, sortzaileen berezko talentua nabarmenduz eta gizarteko testuingurua alde batera utziz sortuz joan zen Mendebaldeko artearen historia, eta, ondorioz, emakume artistak historiari at geratzeko baldintzak bermatu ziren.

Dena dela, mendeak igarota, sistema hori genero-ikuspuntutik birpentsatzen hasi ziren ikertzaileak. Hots, XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera proposamen berriak agertu ziren aurretik egondako *modus operandi* zalantzan jarriz. Linda Nochlinek ireki zuen bidea pentsamendu feminista kritikoan oinarrituta. Emakume artisten bazterketa diskurtso historikoan «Why Have There Been No Great Women Artists?» artikuluan eztabaidatu zuen aurrena (2021 [1971]). Nochlinek artikulua izenburu gisa ageri den galderaren inguruan hausnartu zuen. Izan ere, izenburuak irakurleari emakume artista handirik egon ez zela transmititzen zion inplizituki, historiara igarotzeko beharrezko baldintzak zeintzuk ziren era kritikoan aztertu gabe. Ikertzaileak balizko jenioaren kontzeptuan oinarritutako artearen historiari begirada kritikoa eskaini zion, artistak inguratzen zituen testuinguru pribilegiaduna aditzera emanez.

Nochlinek, gainera, eragin nabarmena izan du artearen historia feministaren garapenean, aurrerago egindako ikerketa askoren oinarriak ezarriz. Esaterako, estatu-mailan, Estrella de Diegok egindako ibilbide luzeko lana azpimarratzekoa da. Teoria feminista abiapuntutzat hartuz, gogoeta ugari egin ditu de Diegok, ahanzturatik artista ugariaren historiari berreskuratu eta aldarrikatuz. Hori izan zen jada bere tesian

10. *Emartistak 2000-2020* proiektuaren xedea da izenburuaren urte-tartean sortutako euskal emakume artisten artelanak Wikipedian ikusgai egitea. Horretarako, bereziki Wikipedian txertatzeko irudi-bilketan aritu dira. Proiektuari buruzko informazio gehiago: <<https://emartistak.wordpress.com/>> (Kontsulta: 2021-09-03).

80ko hamarkadan aurkeztutako lan goiztiarra (1986). Geroago, genero-ikuspuntutik ikertzen jarraitu du eta artearen historialari feminista Estatuan izateak zer esan nahi duen hausnartu du, era sistematikoan lan egiteko gabezia azaleratuz: «[...] esa primera y elemental fase de reconstruir la historia, recuperar en suma a las artistas y las imágenes “locales”, no se ha llevado nunca a cabo de manera sistemática». Gainera, kanpoko teorialarien ekarpenetara mugatu izanak tokian tokiko ikuspuntua garatzeko falta eragin duela salatu du: «Parece que a nuestras y nuestros jóvenes investigadores no les ha interesado volver a los archivos y tratar de entender su propia historia desde una perspectiva crítica [...] y se han conformado a veces con libros de revisión o resumen de cuestiones ajenas» (2012: 620).

Euskal arte-ikerketan ere emakume artisten historiatzeari, eta orokorrean artearen historia ez hegemonikoari, buruzko azterketa azpimarragarriak ari dira garatzen. Azken urteetan, Ane Lekuonak euskal artearen inguruko diskurtsoa berrikusi du ikuspuntu feministatik, imaginarioari dagokionez, historiografiaren eraikuntzaren oinarriak aztertuz. Adibidez, jendartean euskal arte gisa identifikatu ohi den eskultura motari lotutako, eta sozialki eraikitako, konnotazio maskulinoak aztertu ditu, teknika eta materialetan arreta berezia jarritz (2019: 12). Gainera, iruditeriatik haratago, historiaren joera androzentrikoak eman ditu aditzera. Lekuonak adierazten duenez, Hego Euskal Herriko kasuan, diktadura-garaian sortutako arteari lotutako emakumeenganako diskurtso baztertzalea trantsizio-garaian egonkortu zen, gaur egun arte mantenduz. Izan ere, konpromiso soziala edo estilistikoa zuten autoreak hobetsi zituzten diktadura bukatuta, emakume artistek sortutako lan akademizistagoak alde batera utziz (2020: 150). Ondorioz, garai horretako artistak diskurtsotik kanpo geratu eta gaur egun ikertzeke diraute.

Artearen historiako liburu eta artikuluetatik haratago, diskurtsoak instituzio, museo eta erakusketetan ere ageri dira. Are gehiago, testuinguru horietan narrazioak sortu, aktibatu eta indartzen dira, artista eta joera batzuk besteen gainetik pribilegiatuz. Ildo horretatik, Haizea Barcenillak erakusketek genero-ikuspuntutik diskurtsoen garapenean duten garrantzia nabarmendu zuen, Hilma af Klint eta Eileen Grayren erakusketa monografiko bana aztertuz. Zera ondorioztatu zuen, erakusketa horien diskurtsoak antolatzerakoan, artearen historiako irizpide hegemonikoei jarraikiz osatu zirela, jenioaren irudiaren logikari lotutako ustezko objektibotasuna eta neutraltasuna hizpide. Besteak beste, ideia horietan oinarritu nahi izanak, bi artisten erakusketen kasuan, beste emakume batzuekin elkarlanean aritu izanaren garrantzia alde batera uztea eragin zuela argudiatu zuen Barcenillak (2014: 128).

Behin-behineko erakusketez gain, behin betiko bilduman emakume artistak nola txertatu eta aintzat hartzen diren ere gai gatazkatsua da, are gehiago, emakume izateaz gain, arte feminista sortu dutenentzat; museo nagusietan behin betiko bilduman txertatzeak diskurtsoaren *kutsatzea* eragingo duen beldur baitira erakundeak (Mayayo, 2013: 32), artearen historiako diskurtso ofiziala zalantzan jarritz. Orobat, ideia feministen txertaketa museoetan, artelanez gain, beste bide batzuetatik txerta daitekeela argudiatu zuen Patricia Mayayok, erakundeetan antolatutako ekintzetan ikuspuntu feministatik aritu eta partekatutako esperientzietan oinarrituz eta bisitariekin harreman horizontalagoak sustatuz (2013: 30).

Artearen eta publikoaren arteko harremanei buruz ari garela, erakusketez gain, egun artistak gizarteratzean galeria eta museoekin batera Internetek duen irismena ere nabarmentzekoa da. Ukaezina da Internetek ezagutzarekin dugun harremana aldatu duela hein handi batean, diskurtsoak sortzeko eta transmititzeko aukera berriak eskainiz. Sareak erraztasun handia eskaintzen du informazioa azkar eskuratu eta edozein datu bilatu eta zabaltzeko. Horretarako, bereziki azpimarragarriak dira Wikipedia bezalako iturriak, informazio osoa eta eguneratua lortzeko eskaintzen dituzten erraztasunengatik. Artearen testuinguruan, besteak beste, jendartera artista, erakusketa eta kontzeptu artistikoak gerturatzeko iturri baliagarria da sareko entziklopedia. Ez da harritzekoa, beraz, Wikipedia online eskuragai dagoen plataforma bisitatuenerarikoa izatea, hots, mundu-mailan 13. webgune bisitatuena izatea¹¹. Dena dela, ikusiko dugunez, sareko entziklopedia horrek aukera berriez gain, zenbait erronka ere baditu.

3.2. Genero-(des)parekotasuna Wikipedian

Ezin ukatu Wikipediak, ezagutza erregistratu eta barreiatzerakoan, entziklopedia tradizionaletatik bereizten duten alderdiak dituela eta aukera berriak eskaintzen dituela. Etengabe aldatzen ari den entziklopedia dugu, bertan borondatez lan egiten duten editore ugarietarako funtzionatzen duena. Haietarako erabakitzen dute zer artikulua egin eta nola idatzi, eskura dagoen informazioa zuzentzen eta eguneratzen dute, irudiak gehitzen dituzte, etab. Edonor izan daiteke sareko espazio horren eragile, biografien pertsonaiak hautatzean, gutxieneko kalitate-irizpideei jarraituz gero.

Sorkuntza-arloan aritutako pertsonen biografiei dagokienez, artisten egokitasun eta adierazgarritasuna zehazteko, honako baldintzak ageri dira Wikipedian kontuan hartzeko aspektu gisa: 1) pertsona figura garrantzitsua da edo sarritan aipatua izan da; 2) pertsona ezaguna da kontzeptu, teoria edo teknika berria sortu edo aurkitu izanagatik; 3) pertsona ezaguna da bakarkako edo taldeko lan esanguratsua sortu eta gerora liburu, film, artikulua edo bestelako lan baten mintzagaia izan delako; 4) pertsonak sortutako lana a) monumentu esanguratsu, b) erakusketa ezagun, c) arreta kritikorekin iturri edo d) zenbait galeria zein museo famaturen behin betiko bilduman erakutsia izan da¹².

Kalitatezko irizpide horiek, emakumeari eta historian zehar baztertutako beste kolektibo batzuei begira, baztertuaileak izan daitezke, ikerketa berrienak baitira kolektibo horiek ahanzturatik berreskuratu eta artearen historian txertatzen ari direnak. Hortaz, ikerketa horiek espazio espezializatuetatik jakintza orokorrera pasatu eta bertan integratzeko prozesua behar dute eta, ondorioz, editoreentzat ez dira halaberharrez ezagunak. Izan ere, editore-lanak egiten dituztenak ez dira derrigorrez gaian adituak; eta litekeena da, artearen historiaren kasuan, finkatutako artista hegemonikoetatik at gutxi batzuk ezagutzea. Horrela, prozesu zirkular bat sortzen da, non ezagutzarik eta errepresentaziorik ezak, berriro ere, ezagutzarik eta errepresentaziorik eza dakarren berekin.

11. Bisita gehien izan duten orrialdeen zerrenda, helbide honetan: <<https://www.alexa.com/topsites>> (Kontsulta: 2021-09-03).

12. Informazio hau Wikipediako *Notability (People)* sarrerako *Creative professionals* azpitaletik eratorri dugu: <[https://en.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Notability_\(people\)#Creative_professionals](https://en.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Notability_(people)#Creative_professionals)> (Kontsulta: 2021-09-03).

Wikipedian ezarritako irizpide horiek museoek eta instituzioek bermatutako aintzatespen-sistema tradizional horren isla diren arren, sareko entziklopediak zirrikitu batzuk uzten dizkie museoetatik at egondako sortzaileei bertara sartzeko. Haien lanek sareko orrialde desberdinetan presentzia badute, horiek iturri esanguratsu gisa aipatzeko aukera dago, sortzaileak ezagunak direla justifikatuz. Ondorioz, aurretik esandakoarekin alderatuta kontraesankorra badirudi ere, erakunde artistikoen babesa jaso ez izana ez da oztopo mugiezina, baldin eta editoreek artista ezagutu eta autorearen garrantzia azpimarratzeko iturriak topatzen baditu.

Behin sarrera sortuta, beste eragozpen bat ager daiteke, alegia, beste editoreen batek biografia ezabatzea erabakitzea; artista behar bezain ezaguna ez dela, edo ekarpen garrantzitsua egin ez duela uste badu. Ezabatze-nahi horretan, sarreraren hizkuntzak eragina du edo hobeto esanda, hiztunak. Izan ere, hizkuntzaren arabera joera desberdinak daudela dirudi. Mentxu Ramilo wikilariak euskaraz editatzean malgutasun gehiago dagoela azaldu du eta gaztelaniaz aritzean biografia sortzen den pertsonaren adierazgarritasun-irizpideekin zorrotzagoak direla dio (Arratibel eta Ramilo, 2020). Irizpide hori askotan emakumeen biografien kontra baliatu izan da, haien entzute falta argudiatuz biografiak ezabatzeko (Harrison, 2019). Adibidez, behin Ramilok berak azaldu zuen berak landutako lehendabiziko testua azkar ezabatu ziotela eta berak ekintza hori *eraso birtual* gisa jaso zuela (Arratibel eta Ramilo, 2020).

Ondorioz, badirudi emakumeek Wikipedian biografia bat izateko, gizonak baino ospetsuagoak behar dutela izan. Hori dela eta, ingelesezko Wikipediaren inguruan egindako azterketa batean adierazi zuten, ingelesez sortutako emakumeen biografiak, gizonezkoekin alderatuz gero, adierazgarriagoak izan ohi dira. Beste hitz batzuetan esanda, konturatu ziren nola gizonezko biografietan batzuk ez diren hain esanguratsuak hizpide dugun entziklopediari jarraikiz. Horrek emakume *arruntagoak* kanpo geratzen direla esan nahi du, Wikipedian txertatzeko irizpideak nolabaiteko kristalezko sabaia ezartzeko erabiltzen dira eta (Wagner *et al.*, 2016: 10).

Puntu horretan, editoreen profilak zeresan handia du. Azken urteetan egindako ikerketek erakusten dutenez, beren generoa adierazten duten editoreen % 11,3 dira soilik emakumeak (Minguillón *et al.*, 2021). Edizio-lanetan gehiengoa gizonezkoa izateak eragin kaltegarria dauka emakumeen biografiak sortzerakoan. Hain zuzen ere, eduki eta editore aldagaiek elkarren arteko eragina dute eta, hortaz, emakume editore gutxiago egoteak emakumei buruz gutxiago idaztea du ondorioztat. Gainera, desparekotasun hori tradizionalki gai femininotzat jo diren gaiekin ere gertatzen da. Ikuspuntu feministatik aritutako Adrienne Wadewitz humanitate digitaletan adituak azaldu zuen moduan, ez da inola ere kasualitatea *WikiProject*sen proposatutako gaietan, adibidez, historia militarra oso garatuta egotea eta ehungintzari lotutakoak ez hainbeste (2013).

Edizio-laneko desberdintasunei buruz mintzatzean, afektuei lotutako esperientzia psikologikoa ere aztertu da. Wikipediaren berezko dinamika eta genero-roleri lotutako hiru faktorek parte-hartzaile kopuruan genero-desberdintasuna areagotzen dutela argudiatu da.

Lehendabizi, jakintzari begira, emakumeek ezagutzari lotuta beren buruarengan konfiantza gutxiago dutela argudiatu da eta horrek borondatez jakintza partekatzen mugatzen omen dituela (Bear eta Collier, 2016: 259). Gainera, plataformak eskaintzen duen anonimotasunak maskulinitate tradizionalarekin erlazioatutako portaera agresiboak babesten dituela nabarmendu dute ikertzaileek, eta emakumeek espazio desatsegin hori ekidin bitartean, haien presentzia gutxitu. Azkenik, gatazken moderatzaile aktiboen gabeziak editoreen kolektibo gutxituengan eragin negatiboa duela frogatu da, gehiengoaren irizpideak gainjartzen baitira (Bear eta Collier, 2016: 261). Bitartekaririk gabeko itxurazko neutraltasun horretan oinarrituta, esaterako, bereziki emakumeentzat sortutako eztabaida-espazio bat kentzea erabaki zen, demokratikoa ez zela adieraziz. Horrek eragin zuen elkarrenganako laguntza eta babesa, eraso sexistetatik at, bermatzeko espazio seguruaren desagertzea (Edwards, 2015: 413).

Hala ere, ikerketak erakusten duenez, aldaketa nabaritzen da maila altuagoko erabiltzaileekin eta administratzaileekin. Kasu horietan, idazkeran emozioek duten presentzia aldatzen da eta emakumeek eta gizonen gai eztabaidagarrietan parte hartzen dute era berdintsuan. Ikerketek diotenez, baliteke horrek jakintzari lotutako konfiantza handiagoarekin harremana izatea (Gallus eta Bathia, 2020: 128). Orobat, maiz editatzen jarraitzen duten emakumeak gizonak bezain aktiboak dira beren ekarpenetan (Minguillón *et al.* 2021: 18). Horrek baieztatzen du berriz ere, beharrezko jakintza edota esperientzia dutela barneratuta, desberdintasuna gutxituz doala, eta, hortaz, emakumeak Wikipedia editatzera gerturatzea genero-arrakalari aurre egiteko bide egokia dela.

Wikipedia artisten aintzatespenerako bidea ere badela nabarmendu izan du artearen eta ezagutza librearen arteko harremanak ikertu dituen Natxo Rodriguez ikertzaileak, talde feministek egindako esku-hartzeak nabarmenduz (2021: 8). Aintzatespenerako ekintza horiek ziberfeminismoaren barnean koka ditzakegun ediziorako deialdien erantzuna izan ohi dira. Interesgarria da nola ekintzek esfera publikoa eta pribatua nahasten dituzten, bakoitzak bere etxetik lan egin eta era publikoan, online, partekatzen baititu hautatutako edukiak. Oihane Iraguenen ziberfeminismoari buruzko euskarazko sintesian, gela propio birtuala, hau da, sortzeko berezko espazioa sortzen dela erakusten da identitateei lotuta (2017: 13)¹³.

Ildo horretatik, azpimarratzekoak dira, beren kabuz lan egiten duten pertsoez gain, eginkizun horretara bideratutako talde zehatzak. Horri dagokionez, Marisa Barrera wikilariak talde-prozesuko alde onuragarria aipatzen du: «Esate baterako, zu orain ez dakit noren biografian sartuko bazina, eta zirriborroan dagoela ikusita pentsatzen baduzu badaukazula hori hobetzeko modua, hobetzen duzu, hornitzen duzu. Horregatik da talde lana» (Izaga Gonzalez eta Barrera, 2021).

Wikipediako desperekotasunari aurre eginez, nazioartean ikuspuntu feministatik garatutako askotariko proiektuekin egiten dugu topo, hizkuntza eta herrialde anitzetan. Hasteko, zehazki arteari lotuta, nazioartean *Art and feminism*¹⁴ proiektua

13. Remedios Zafrá Virginia Wolfen logela propioaren kontzeptutik abiatu zen gela propioaren ideia sarean kokatuz.

14. <<https://artandfeminism.org/>> (Kontsulta: 2021-09-03).

dugu, zeinak lantalde desberdinak dituen bere baitan. Gero, artearen mundutik haratago, orokorrean emakumeen ikusgaitasuna areagotzen ari diren ekimenak ere baditugu, *Women in Red*¹⁵ kasu. Hori da biografien inguruko genero-desparekotasuna gutxitzeko lanean dabilen proiektu handienetakoa. Ildo berari jarraitzen dio Euskal Herriko *WikiEmakumeok* ekimenak, bereziki jada aipatutako Marisa Barrena durangarrak eta Mentxu Ramilo gasteiztarrak sustatua. Wikipedian emakumeen presentzia areagotzeaz gain, existitzen diren profilak euskaratzeaz zein berriak sortzeaz arduratzen dira eta emakume gehiago gerturatzen dituzte edizio-lanetara topaketa ugari antolatuz¹⁶. Euskal ikerkuntzaren alorretik ere, gure ekarpena egiteko aukera dugu eta hor kokatzen da artikulu hau, non Wikipediako euskal artearen egungo egoera izango dugun aztergai.

4. Euskal emakume artisten presentzia euskarazko Wikipedian

4.1. Arte-diziplina eta zenbakiei begirada bat

Euskarazko Wikipedian 500 euskal artista baino gehiagoren biografiak daude guztira eskuragarri, XIX. eta XXI. mendeen artean jaio eta bizitakoak. 500 artista horiek, *Euskal Herriko artistak* zerrenda eta izen bereko kategorian aurki ditzakegu. Zerrenda eta kategoria horiek Euskal Herrian jaiotako sortzaile kopuru ohargarria biltzen dute eta, izen propio ugari falta den arren, ezin da ukatu euskal testuinguru artistikoaren ikuspuntu zabala eskaintzen dutela.

Zabaltasun horren adierazle ditugu, esaterako, *Euskal Herriko artistak* kategoria osatzen duten azpikategoriak, guztira 26. Euskal lurraldeka eta diziplina artistikoka daude banatuak, izenen antolaketa eta bilaketa errazteko. 26 azpikategoria horietarik 18 diziplina artistikoak dira eta pintura, eskultura, arkitektura, literatura, musika, dantza edota zinemarekin erlazionatutako alorrak biltzen dituzte, besteak beste. Hala ere, zerrenda, kategoria eta azpikategoria horietan barrena, ohikoa da esparru artistiko batean baino gehiagotan dauden artistak ikustea. Izan ere, sorkuntza artistikoan mugak lausotu egiten dira askotan, artista ugari diziplinartekotasunaren alde egiten dute, arte garaikidearen kasuan bereziki.

Beraz, arestian aipatu bezala, zazpi lurralde historikoen sortzaileei dagozkien margolaritza, ilustrazioa, marrazkilaritza, eskultura, argazkilaritza eta performancea kategorietan jarriko dugu guk arreta artikulu honetan. Horrela, Wikipedia eta euskal artista garaikideenganako hurbilketa bat proposatu nahi dugu; zehazki, emakume bezala identifikatzen diren artisten sarrerak gogoan edukiz.

Izan ere, euskal sortzaile kopuruak aztertzerakoan, argi geratzen da ikuspegi maskulinoa dela nagusi; izen ugari falta dira, emakumezkoenak gehienbat. Datuei begira, 135 dira biografia duten emakumeak, euskal artisten biografien % 20,3 soilik¹⁷. Baina ez da harritzekoa, datu horiek artearen historiaren eraikuntzan


15. Women in Red proiektuari buruz gehiago jakiteko esteka: <https://en.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:WikiProject_Women_in_Red> (Kontsulta: 2021-09-03).

16. Sorginenea, Leioako Zientzia eta Teknologia Fakultatea, UPV/EHUko Ibaeta Campuseko Berdintasuneko Masterra, Etxebarriko Udal Berrikuntza Zentroa eta Durangoko Ibaizabal Ikastola izan ohi dira topagune.

17. 2021eko uztailen lortutako datua.

presente egondako ikuspegi baztertzailer eta partzialaren erreflexu zuzena dira eta. Era berean, azken hamarkadetan arte garaikidea oinarri duten euskal instituzioen eta erakusketen baitan jazotako egoera ere islatzen du desparekotasun horrek eta, orokorrean, artearen historiako liburu eta ikasketetan irakasten denarena, aurreko atalean adierazi bezala. Horregatik da hain garrantzitsua Wikipedia bezalako plataforma bisitatu, irisgarri eta, printzipioz, demokratikoetan, emakumeei buruzko informazioa egotea, Wikipedia bezalako espazioek garrantzia baitute egungo diskurtsoen eraikuntzan.

Gauzak horrela, Wikipedian euskal emakume artisten presentzia aztertuko dugu ondorengo azpiataletan, datu kuantitatiboan bilketa eta irudikapen grafikoak baliatuz. Zenbaketak eta kuantifikazioek genero-desparekotasuna murrizten ez duten arren, batezbestekoak eta bestelako datuak baliagarriak izango dira horren inguruan hausnartu eta egoeraren nondik norakoak hobeto ulertzeko. Izan ere, dagoena eta falta dena identifikatzeak berebiziko garrantzia du etorkizunean hutsik edo osatu gabe dauden eremuak betetzen joan ahal izateko.



1. irudia. «Euskal Herriko artistak» kategorian eta zerrendetako emakume eta gizon sortzaileen kopuruak diziplinaren arabera. (2021eko otsailean lortutako datuak)

Has gaituzen, hortaz, Euskal Herriko artisten inguruko kategoriak aztertzen. Goiko grafikoan ikus daitekeenez (1. irudia), Wikipedian dauden sortzaileen gehiengoa pinturaren arloan lan egiten duten artistak dira, margolari, ilustratzaile eta, neurri txikiago batean, marrazkilaria. Emakume gisa identifikatzen diren artistak ere alor horretan dira nagusi, eta horien atzetik argazkilaritza eta eskultura egongo lirateke; performance-artea azkenik.

Oro har, euskal eremuan gertatzen den moduan, pinturak, eskulturarekin batera, presentzia handiagoa du museoetan eta argitalpen artistiko eta historikoetan, eta hori Wikipedian argi islatzen da. Pinturan aritzeko materialak eta euskarria eskuratzen errazagoak direnez, erabiliagoak izan dira historian zehar, eta baliteke hori izatea margolarien biografien presentzia handiagoa izatearen arrazoietako bat, eskultoreenarekin alderatuz, kopurua bikoitza baino handiagoa baita.

Halaber, euskal testuinguruan, pintura eta eskultura izan ziren berei buruzko argitalpen orokor eta tematikoak izan zituzten lehen diziplinak, eta hori ere duten presentzia handiagoarekin lotu genezake. Hala ere, pasa den mendeko erakusketa eta arte-liburuetan, ohikoa zen emakume artistak era anekdotikoan edo kategoria desberdin batean agertzea, Ane Lekuonak ikertu bezala (2020: 148-149). Horren isla aztertzen ari garen grafikoan ere antzeman dezakegu.


Performancearen agerpen eskasari dagokionez, kontuan hartu beharra dago nahiko praktika ezezaguna dela publiko orokorarentzat, eta oraindik ere oso presentzia txikia duela euskal museo eta erakunde artistikoetan. Beraz, ez da harritzekoa lau izen ezagun baino ez aurkitzea Wikipedian. Gainera, euskal performancearen historizazioa oso gaztea da: lehendabiziko saiakera orokorra 2010eko hamarkadan burutu da (Landabaso, 2016). Orobat, kontuan hartu beharrekoa dugu arte mota horrek duen bildumaratze-prozesu konplexua. Gainera, bideo eta argazki moduan aurkezten da performancea askotan, argazkilaritza edo bideo-artearekin loturak ezarriz, performancearekin erlazionatu beharrean. Hala ere, performanceak gero eta presentzia handiagoa du testuinguru artistikoan eta museoetan bildumaratzeko joera nagusitzen ari da modu ugaritan (Arranz, 2018: 30). Ondorioz, pentsatzekoa da etorkizunera begira, kopuru horiek handitu heinean, performancearen inguruko iturriak orokortu eta Wikipediara igaroko direla.

Ondoren, diziplina horietan emakume eta gizonezko artistek duten presentziaren ehunekoetan (2. irudia) jarriko dugu arreta. Irudia gainbegiratu, datuek argi uzten dute gizonezkoen biografiak direla nagusi. Are gehiago, emakume sortzaileen biografiak ez dira guztizkoaren % 20ra iristen argazkilari, eskultore, margolari eta marrazkilari azpikategorietan; non hurrenez hurren % 17,7, % 9,8, % 15,3, eta % 13,9 diren.

Beharbada, artearen historian hain errotuta dauden diziplinak direlako da bertan genero-desberdintasuna nabarmenena. Hain zuzen ere, jada azaldu bezala, historikoki emakumeek ez dituzte artista izateko aukera berdinak izan eta, aldi berean, kultur erakunde eta erakusketetan duten presentzia parte-hartze anekdotikoetara murriztu izan da.

Hala ere, datu horiek ez dira azpikategoria guztietan mantentzen. Ilustratzaileen kasuan, zenbakiak parekatuago daude, % 54,1 baitira emakumezko sortzaileak. Ezin dugu ziurtasunez esan zergatik den emakume artisten presentzia handiagoa azpikategoria horretan, baina, ilustratzaile horien gehiengoa Haur eta Gazte Literaturarekin erlazionaturik dagoenez, litekeena da biografietako asko arlo horrekin lotutako ekimenen harira sortu izana. Horren eragile gisa, 2016an sortutako

Haur eta Gazte Literatura Wikiproiektua¹⁸ aipa dezakegu, besteak beste. Wikipedian «Haur eta Gazte Literaturaren edukiak zabaltzea» helburu duen ekimena da eta proiektuak gauzatutako lanen artean biografien sorkuntza aurki dezakegu, ilustratzaileena barne. Gauzak horrela, lehenengo edizioan euskarazko Wikipedian dauden 33 emakume ilustratzaileen biografietatik 11¹⁹ sortu zituzten. Gainera, *Euskal Irudigileak*²⁰ bezalako elkarte eta webguneak ere existitzen dira, zeinetan alor horretan lan egiten duten pertsonak ezagutzera emateko egiten den lan, artisten inguruko iturri fidagarriak sortuz, ondoren Wikipedian erabil daitezkeenak.



2. irudia. «Euskal Herriko artistak» kategoria eta zerrendetako emakume eta gizon sortzaileen ehunekoak diziplinaka. (2021eko otsailean lortutako datuak)

Performerren kasuan ere gehiengo dira emakume sortzaileak, % 75 hain zuzen ere. Baina kasu horretan beharrezkoa da datu hori perspektiban jartzea, performance-artean jarduten duten lau artista baitaude soilik zerrendetan. Gainera, dauden emakumeen izenak euskal artista ezagunenetariakoak dira gaur egun euskal artean eta nazioartean: Itziar Okariz, Esther Ferrer eta Maider López²¹.

18. 2015eko udazkenean, Donostiako Udal Liburutegiko Haur Liburuaren Dokumentazio Gunearen, Donostia Kulturaren, Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburutzaren, Euskal Herriko Unibertsitatearen (bereziki Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskola) eta wikilari zenbaiten eskutik abiarazitako proiektua da. Besteak beste, biografiak sortu, irudiak txertatu, lan zehatzen sarrerak sortu zituzten, hemen esteka: <https://eu.wikipedia.org/wiki/Wikiproiektu:Haur_eta_Gazte_Literatura> (Kontsulta: 2021-09-03).

19. 2016ko edizioan sortutako artikuluen zerrenda: <https://eu.wikipedia.org/wiki/Wikiproiektu:Haur_eta_Gazte_Literatura/2016/Artikuluak/Essentials> (Kontsulta: 2021-09-03).

20. <<https://euskalirudigileak.com/eu>> (Kontsulta: 2021-09-03).

21. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Itziar_Okariz, <https://eu.wikipedia.org/wiki/Esther_Ferrer> eta <https://eu.wikipedia.org/wiki/Maider_L%C3%B3pez_S%C3%A1enz>(Kontsulta: 2021-09-03).

4.2. Emakume artisten Wikipediako biografien azterketa

Ehunekoak alde batera utzita, emakume sortzaileen presentziaren inguruan hausnartzen jarraitzearen, beharrezkoa iruditzen zaigu haien biografietan ere arreta berezia jartzea. Horrela, biografien idazketa-arauei eta horien osatze-mailari buruz sakontzea da atal honen xedea, Wikipedian biografiek orokorrean, eta zehazki emakumeenak, dituzten ezaugarriak buruzko gogoeta eginez. Horretarako, Wikipedian eskuragarri dauden 135 emakume artisten biografiak aztertu ditugu.

Biografiak, Wikipediako gainerako artikuluak bezala, ahots, idazkera eta berridazketa, zerrenda, ohar eta erreferentzia ezberdinen bidez eraikitzen eta berreraikitzen dira etengabe. Baina badago eremu komun bat, argi baitago Wikipediak aurrez finkatutako eskema eta gidei jarraitzen diela: «Las biografías [...] deben escribirse en forma responsable, conservadora y en un tono enciclopédico y neutral»²².

Hiru dira jarraitu beharreko irizpide nagusiak: ikuspegi neutrala, egiaztagarritasuna eta ikerketa originalik eza²³. Argi uzten da Wikipedia ez dela lehen mailako iturria, entziklopedia bat baizik, non fidagarriak diren iturrietako informazioa bildu eta transmititzen den. Hortaz, informazio orok bere iturria behar du, idatzitako datuak nondik datozen adierazten duena. Horiek horrela, Wikipedia objektibotasuna du helburu; eta, jakina, zentzu horretan ez dago esperimenezko leku handirik.

Hala ere, biografien kasuan bizitza baten kontakizun osoa eta zehatza eraikitzeko ezintasunarekin egiten dugu topo. Iturriak oso aberatsak izan arren, bizitzen zertzelada batzuk baino ez dituzte eskaintzen. Eta, kasu askotan, izaera partzial hori areagotu egiten da emakumeen biografien kasuan, iturri eskasia handiagoa baita (Bolufer, 2014: 95).

Orobat, Wikipediako editoreek iturri horiek oinarri hartu eta artistaren biografiarekin bat etor daitekeen narrazio bat eraikitzen dute. Beraz, biografien eraikuntza, hein batean, ikuspuntu subjektibo batetik abiatzen dela esan genezake. Gauza bera gertatzen da artearen historia deritzogunarekin, historia nola idatzi eta kontatu den baldintzatzen baitu idazten duenaren mundu-ikuskerak. Denboraren joanean historia hegemoniko gisa ezarri diren diskurtso jakin batzuetatik abiatzen den eraikuntza da historia, oro har, duela hamarkada batzuk arte, kritika gehiegirik gabe onartu eta transmititzen zena. Eta, noski, artisten biografiak ere eraikuntza horren zati dira.

Donna Haraway-ri jarraikiz, *situated knowledge*²⁴ genuke gizakiok sortutako ezagutza. Harawayren proposamen horren arabera, ikerketa- eta idazketa-prozesuetan norberaren testuinguruak eta esperientzia eta pribilegio propioek eragina dute. Ezagutza mota oro, baita esperimeta dezakeen subjektu oro ere, konnotazio kultural eta sozial jakin batzuen mende dago. Horiek denboran zehar izan dira

22. <https://es.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Biograf%C3%ADas_de_personas_vivas> (Kontsulta: 2021/07/27).

23. Wikipediako irizpideei buruz gehiago jakiteko: ikuspuntu neutrala <https://en.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Neutral_point_of_view>; egiaztapen-gaitasuna <<https://en.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Verifiability>>; ikerketa berririk eza <https://en.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:No_original_research> (Kontsulta: 2021-09-03).

24. Euskarara *ezagutza kokatu* gisa itzul dezakegu.

eraiki eta ezarriak, mota askotako ezagutzen bidez, eta nor garen eta zer edo nola pentsatzen dugun baldintzatzen dute (Haraway, 1988: 590).

Harawayren ikuspuntua partekatzen dugun heinean, gaur egun XIX. mendeko eta XX. mendearen hasierako positibismotik urrun gaudela nabarmendu nahi dugu eta aztertzen ari garen entziklopediak eskatutako objektibotasuna nolabait problematikotzat jotzen dugu. Izan ere, edukiak historian eta entziklopedietan txertatzeaz gain, horiek nork, nondik eta zergatik gehitzen dituen kontuan hartzeko ardura geroz eta presenteari izan behar dugula uste dugu, baita zer eta nola kontatzen den ere.

Euskal emakume artisten biografiei dagokienez, egoera askotarikoa da. Denerariko biografiak daude eskuragarri adina, jaioterria, ibilbide artistikoa edo sorkuntza mota bezalako datuak hartzen badira kontuan; eta pluraltasun horrekin ezin da euskal artisten biografien irakurketa bakarra gauzatu. Artista batzuen inguruan asko idatzi eta ikertu da, beraz, biografia osatzeko baliagarriak diren iturri ugari aurki daitezke. Beste batzuen kasuan, aldiz, azaleko datuak besterik ez dago eskuragarri.

Baina, iturri kopurua gorabehera, eskema antzekoari jarraitzen diote denek, Wikipediak ezarritako gida oinarri hartuz. Sarrera labor batekin hasten dira, artista nor den hitz gutxitan definitzen duena. Batzuetan informazio hori aurki dezakegu soilik, Teresa Castro²⁵ edo Ixone Sádbaren²⁶ kasuan bezala, adibideren bat aipatzearen. Gero, biografietan sakontzen da zenbaitetan, eta ibilbide pertsonal edo artistikoaren inguruko zenbait datu ere ager daitezke. Horretaz gain, egindako erakusketa eta publikazioak, jasotako sariak edota aitorenak aurkitzen ditugu zerrendatuak, Eider Eibarren²⁷ sarreran adibidez. Kasu gutxi batzuetan, artistaren teknika edo estiloaren inguruko zenbait lerro ere badaude, edo gauzatutako proiektu zehatzen inguruko nondik norakoak, Itziar Okarizen²⁸ biografiaren eskeman ikus dezakegun bezala (3. irudia). Hala ere, ez da ohikoena azken datu horiek aurkitzea. Azkenik, informazioaren iturriak edo kanpo-estekak egongo lirateke kasu guztietan.

Pentsa genezake biografia osatuenak artista ezagunenak, nazioarteko errekonozimendua dutenenak edo ibilbide artistiko luzeagoa izan dutenenak direla. Izan ere, artisten eta haien lanaren inguruko artikulua, elkarrizketa eta ikerketa gehiago eskura izatea esan nahi du horrek; hau da, biografiak sortu eta osatzeko informazio-iturri ugari eta osoagoak. Eta zenbait kasutan, espero genezakeen moduan, hala da. Hori da, esaterako, Itziar Okariz eta Esther Ferrer performerren kasua, nazioartean ezagunak biak. Haienak dira biografia osatuenarikoak, edo hori ematen digu behintzat aditzera ORES izeneko adimen artifizialean oinarritutako erremintak. ORES Wikipediako artikuluen kalitatea neurtzen duen erreminta da, 1 eta 10 bitarteko kalifikazioa ezarritik horretarako²⁹. Okarizen kasuan, haren biografiak

25. Teresa Castroren Wikipediako sarrera: <https://eu.wikipedia.org/wiki/Teresa_Castro> (Kontsulta: 2021-09-03).

26. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Ixone_S%C3%A1daba> (Kontsulta: 2021-09-03).

27. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Eider_Eibar> (Kontsulta: 2021-09-03).

28. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Itziar_Okariz> (Kontsulta: 2021-09-03).

29. Datu horiek kontuan hartzerakoan, azpimarratu beharra dago kalitatea kalkulatzeko artikulua luzera eta erreferentzia, atal edota irudi kopurua bezalako irizpide kuantitatiboak hartzen dituela ORESek kontuan, ez ordea testuaren idatzizko kalitatea. ORESi buruzko informazio gehiago: <<https://eu.wikipedia.org/wiki/Laguntza:ORES>> (Kontsulta: 2021-09-03).

7,2 puntuko kalifikazioa du, *ondo* aipamenari dagokiona; 6,13 Esther Ferrerrenak, *nahiko* izango litzatekeena.

Itziar Okariz

🔍 4 hizkuntza ▾

Kalitate neurketa 🗳️ (7.2)

Itziar Okariz (Donostia, 1965eko apirilaren 21a) artista Gipuzkoarra da eta 1997. urtetik New York hirian bizi da. Eskultore gisa definitzen du bere burua, nahiz eta bere lana batik bat performancetan eta ekintzetan oinarritzen den.^[1] Bestalde, testua irudia eta ahotsa erabiliz, gorputza irudikatze politiketara espazioaren ekoizpenari loturiko alderdiak lantzen ditu, arkitekturaren nahiz hirigintzaren formei beste esanahi bat emanez.^[2]

Eduki-taula [ezkutatu]	
1	Biografia
1.1	Jaiotza eta ikasketak
1.2	Bekak eta sariak
1.3	lbilbide artistiko laburra
1.4	Erakusketak eta agerpenak
2	Lanak eta bilakaera artistikoa
3	Proiektuak eta Instalazioak ^{[6][7]}
3.1	Rambo eta ni (1990)
3.2	Variations sur le même t'aime (1991)
3.3	Body Building (1992)
3.4	9cmtik 4,50cmra bitarteko giza ile josteka azalaren gainean (1993)
3.5	"Red Light" eta "Martaren estudioan saltoka" (1994-1995)
3.6	The Art of Falling Apart es de (1996)
3.7	Euliekin ekintzak (1997)
4	Ulelmen prozesua ^[1]
5	Hizkuntza eta hizkuntzaren materialtasuna ^[1]
6	Feminismoa bere artearen barruan
7	Lan pedagogikoak
8	Erreferentziak
9	Kanpo estekak

Itziar Okariz	
	
Bizitza	
Jaiotza	Donostia, 1965eko apirilaren 21a (56 urte)
Herrialdea	 Gipuzkoa, Euskal Herria
Hezkuntza	
Heziketa	Euskal Herriko Unibertsitatea
Hizkuntzak	euskara gaztelania
Jarduerak	
Jarduerak	artista, artista bisuala, performance/aria, argazkilaria eta

3. irudia. Itziar Okarizen sarreraren detailea euskarazko Wikipedian.

Baina salbuespen ugari daude informazio gehiago eskura izateak Wikipedian biografia osoagoa ekarriko duela ziurtatu ahal izateko. Salbuespen aipagarrienen artean Ana Laura Aláez eta Marisa Gonzálezen kasuak ditugu. Nazioarteko errekonozimendua jaso duten artistak izan arren, haien inguruko artikulu eta publikazio ugariaren eraketa ekarri duena, euskarazko Wikipedian ez da asko haien inguruko informazioa. Eta gauza bera gertatzen da beste artista askorekin ere. Ezinezkoa da, beraz, iturri kopuruaren eta biografien osotasunen arteko erlazio eztabaida ezina ezartzea. Are gehiago, euskal emakume artisten biografien batez besteko kalitateari erreparatzen badiogu, 3,14 da, nahiko eskasa orokorrean.

Era berean, artikuluen kalitatearen —betiere ORES tresnaren arabera— eta bisita kopuruaren artean ere ez dago inolako erlaziorik. 135 biografia horiek 37.726 bisita jaso dituzte azken urtean³⁰, 2020ko irailaren 1a eta 2021eko abuztuaren 31 bitartean. Ikusiko dugunez, bisita kopuruak harreman handiagoa dauka Wikipediaren erabiltzaileen interes zehatzekin, eta, asko jota, handitu egin daiteke argitalpen, erakusketa, sari edo obraren bat jaso edo aurkeztu berriekin, Jone Laspiurren³¹ kasuan bezala. Aztertutako 135 artisten artean, Jone Laspiurrena izan da azken

³⁰. Wikipediako orrialdeek denbora-tarte jakin batean izandako bisiten berri ematen duen *Wikipedia page views spreadsheet* erremintari esker ateratako datuak dira hauek.

³¹. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Jone_Laspiur> (Kontsulta: 2021-09-03).

urtean bisita gehien jaso duen biografia, 13.664 guztira. Baina, orokorrean, bisita horiek ez daude haren sorkuntza plastikoarekin erlazionatuta, haren aktore-lanarekin baizik. Izan ere, Laspiurrek emakumezko errebelazio-aktore onenaren saria jaso zuen 2021eko Goya sarietan, *Ane* filmean egindako lanagatik.



4. irudia. Dora Salazar, *Zirgariak*, 2021. Wikipedia.

Bigarren postuan, Dora Salazarren sarrera aurki dezakegu, 3.516 bisitarekin. Salazar da historikoki bisita gehien izan duen Wikipediako artista aztertutako emakumeen kasuan. Hala ere, aipatzekoa da 2021eko apirilaren bukaeran haren biografiaren bisita kopuruak gora egin zuela. Gorakada horren atzean, hilabete horren bukaeran, Bilboko ibai ondoko paseoan, haren eskultura bat jarri izana egon daiteke, *Zirgariak* izenekoa. Izan ere, sare sozial eta egunkarietan nahiko agertu den lana da, haren Wikipediako sarreran ere zenbait argazkirekin agertzen da (4. irudia horietako bat da)³².

Hirugarren tokian, Ainara Azpiazu Aduriz kokatzen da, 1.141 bisitarekin. Ilustrazioan lan egiten duen artista da; zenbait mural esparru publikoan gauzatzearekin batera, komiki eta liburu ugari ilustratu du. Azken horien artean, adibidez, *Basoan Barna* eta *Catalina de Foix* ditugu aipagarri, biak 2021ean argitaratutakoak. Agian berritasun horiek ezagutaraztean, ilustratzailearen bilaketak handitu dira, Wikipedian besteak beste.

Bisitak, beraz, gaurkotasun-albisteekin lotuta egon daitezke; eta horrek batzuetan biografien osaketa ekar dezake berekin, bisitari horietakoren batek artistaren inguruko azken albisteak txertatzea erabaki baitezake. Horregatik ezin dugu ahaztu biografiek gaur egun izan dezaketen informazioaz haratago, haien berrikuspen eta


32. 2021eko apirilaren 28an *El Correo* egunkarian agertu zen aurrena Dora Salazarren *Zirgariak* lanaren inguruko albiste. Apirilak 28tik maiatzaren 2ra arte, aste bereko igandea, bost egunetan, 400 bisita izan zituen Wikipediako haren euskarazko biografiak. Aitzitik, apirilaren 1a eta 27a bitartean, 27 egunetan, 123 soilik.

eguneraketak duen garrantzia, batez ere artistak bizirik jarraitzen duen kasuetan. Beraz, biografia oso bat baliagarria izan daiteke aurkeztutako artistak eta haien lana hobeto ezagutzeko, baina biografia eguneratua izateak ere pisu handia du horretarako.

4.2.1. Adinaren arabeko joerak

Wikipediako euskal emakume artisten biografien inguruko informazioan sakontzeko, adinen inguruko azterketa ere gauzatu dugu. Adinak ez du nahi eta nahi ez sorkuntza artistiko oparoagoa edo, artearen munduaren aldetik, aitortza handiagoa berekin ekartzen; baina, eskuragarri dauden biografiak ikertu ondoren, ikusten dugu oro har ibilbide artistiko luze eta zabala duten artistak nabarmentzen direla. Beste era batean esanda, dagoeneko artearen munduan finkatuta dauden sortzaileak dira nagusi. Ez da harritzekoa, horiek baitira iturri gehien eskuragarri duten artistak, baita ezagunenak ere. Beraz, alde batetik zein bestetik, Wikipedian sarrera izateko aukera gehien dutenak dira.

Egoera hobeto ulertze aldera, euskal emakume artisten adinaren arabeko joerak biltzen dituen grafikoa analizatuko dugu jarraian (5. irudia). Grafikoa hamarkadaka dago antolatuta eta, artistaren jaiotza-urtea kontuan hartuz, 1800 eta 2000 urteen artean jaiotako sortzaileak ditu bere baitan, 130 guztira³³. Horietatik % 70 baino gehiago bizirik daude oraindik ere, nahiz eta horrek ez duen testuinguru artistikoan aktibo jarraitzen duenik ziurtatzen.



5. irudia. Euskarazko Wikipediako emakume artistak jaiotza-hamarkadaren arabera sailkatuta.

(2021eko uztailen lortutako datuak)

33. Aurretik aztertutako artisten kopuru osoa 135 den arren, jaiotza- edota heriotza-dataren gabezia dela eta, bost artistaren datuak falta dira grafikoa, hauek dira: Ana Maria Batanero, Elena Cajaraville, Marie Garay, Basilia Tarríos eta Agustina Zugasti.

Grafikoa ezkerretik eskuinera behatzen hasten bagara, agerikoa da, XIX. mendean zehar jaiotako artista kopurua murrizta dela, 12 autore besterik ez. Kopurua ez da askoz handiagoa XX. mendearen lehenengo hamarkadetan 1900etik 1939ra arte jaiotakoak 18 baitira. Kasu horietan urruntasun kronologikoak emakume horien ezagutza falta ekar dezake berekin. Izan ere, haien garaian eta gerora artearen historiari kanpo utzi badira, berreskuratzeko zailtasuna handiagoa da. Ziurrenik, Ane Lekuonak legitimazio-sistemari buruz aipatutakoa aplikagarria litzateke kasu honetan. Esaterako, pintatu duten emakume artistak egon badira ere, ez zen ohikoa hori haien ogibide profesionala izatea. Hortaz, emakume artistak historiari kanpo utzi zituztela argudiatu da, ez existitzen ez zirelako, baizik eta artearen inguruko diskurtsoak eraiki zituztenek alboratu zituztelako (Lekuona, 2020: 152).

1960ko hamarkadatik aurrera topatzen dugu sortzaile kopururik handiena, Estatuko *baby boom* belaunaldiari lotuta. Gainera, 1970ean sortu zen Arte Ederren Fakultatea eta gero UPV/EHU integratu zen. Bertatik pasatu dira Euskal Herriko artista ugari eta, denborak aurrera egin ahala, euskal esparru artistikoan aktibo mantendu da garai horretan jaiotako artista anitz. Era berean, agertzen direnak azken hamarkadetan instituzio artistiko, erakusketa edo programazio kulturaletan presentzia handiena izan duten sortzaileak dira kasu askotan eta, beraz, haiei buruzko informazio ugari dago eskura. Zenbait biografia, esaterako, sarean erabilgarri dauden beste entziklopedietatik eskuratutako testuetatik abiatuta sortu dira, Lur Entziklopedia eta Auñamendi Eusko Entziklopediatik; adibidez, azken horren aipuak ageri dira Ana Laura Aláez eta Naia del Castilloren sarreretan.

Gorabidean dauden artistak, aldiz, gutxiago dira. 1990eko hamarkadan jaiotakoak dira Wikipedian biografia duten artistarik gazteenak, 9 guztira. Kontraesankorra badirudi ere, zenbaitetan Interneten presentzia handia duten sortzaileak dira horiek, sare sozial eta webgune pertsonalak hobesten baitituzte beren lanak jendarteratzerakoan. Baina, ikasketak duela gutxi bukatu dituztenez, oraindik ez dute presentzia handirik izan erakusketa edo arte-espazio azpimarragarrietan. Hortaz, oraindik ez dira publiko orokorarentzat ezagunak eta haien inguruko informazioa ez da zabala sareko entziklopedian. Gainera, aipatzekoa da, kasu askotan, sortzaile gazte horiek ez dutela astirik izan oraindik ere esparru akademikoan egindako proiektuetara mugatzen ez den ekoizpen artistiko propioa sortzeko.

Datozen urteetan, artearen munduan jarraitzen badute, haien inguruko iturri gehiago sortuz joango dira eta 1990eko hamarkadan jaiotako artista kopuruak gorantz egingo du. Eta, era berean, XXI. mendean jaiotako artistak aurkitzen hasiko gara, artikulua idazten ibili garen unean oraindik presente ez dagoen adin-tartea baita. Euskal Herrian Arte Ederren ikasketak gauzatzen dituzten pertsonen gehiengoa emakume gisa identifikatzen dela kontuan hartzen badugu, baita instituzio eta erakusketetan haien parte-hartzea handituz joango dela ere, pentsatzekoa da euskal panorama artistikoa eta sorkuntza-arloko biografien joera berdinzaleagoa bilakatzea datozen urteetan.

4.2.2. Artelanak eta irudiak biografien baitan

Biografien inguruan hausnartzerakoan, idatzizko testuarekin batera, ezin dira dokumentu grafikoak ahaztu. Izan ere, testuaz gain, multimedia-elementuek ere osatzen dute Wikipedia, hau da, irudi, audio eta bideoak bezalako ikus-entzunezko artxiboek. Wikimedia fundazioak 2004. urtean, Wikipedia sortu eta hiru urte geroago, Wikimedia Commons sortu zuen mota horietako fitxategien erabilgarritasuna errazteko nahiarekin, edozein hizkuntzarako Wikipedian³⁴.


Agerikoa da elementu horiek duten garrantzia Wikipedian eta berau osatzen duten artikuluetan, irudiek bereziki, horiek dira-eta artxibo erabilienak. Irudiak informazio-iturri garrantzitsua izan daitezke eta, artearekin erlazionatutako artikuluen kasuan, artista edota artelan zehatzen inguruan idatzitakoa laguntzeko eta arte-teknikak edota mugimendu artistiko konkrituak ilustratzeko biziki baliagarriak dira. Azken finean, irudiek beste mota bateko informazio helarazten dute, testua osatuz eta gure eskura informazio gehigarria jarriz.

Gauzak horrela, kultura eta artearen eskuragarritasuna, ikerketa eta sorkuntza errazten duten edukia dira, doan erabili, eraldatu edota zabaldu daitezkeenak, *copyleft*aren erabilerrari esker. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da Wikimediak eta *copyleft*ak sorkuntzaren prozesu eta hedapenari hamaika bide zabaltzen dizkiotela, Natxo Rodriguezek bere tesian aztertu zuen moduan (2008).


Hala ere, irudien erabilgarritasuna gorabehera, beren burua emakumetzat duten euskal sortzaileen biografiak aztertzen baditugu, irudiekin topo egitea ez da ohikoena; ez artisten argazkiak, ezta haien artelaneak ere. Lan konkrituen inguruko erreferentziak edota deskribapenak, ordea, badaude zenbaitetan, baina orokorrean ez irudiz lagunduta. Hori da esaterako Itziar Okarizen kasua, adibide bat esatearren. Aipatu bezala, Okarizena da aztertutako biografien artean osatuenetarikoa, eta artistak egindako zenbait proiektu biltzen dituen atal espezifikoa ere badu. Baina, ostera, ez dago proiektu horiek zuzenean irudikatzen dituen argazkirik. Eta zoritxarrez, Okarizena ez da kasu bakarra, joera baten irudikapena baizik.

135 euskal emakume artisten biografiak aztertu ondoren, artelan edo proiektu zehatzen irudiekin topo egitea salbuespena izan ohi dela argi geratzen da. Artisten argazkia aurkitzea, aldiz, normalagoa da, aipatu berri dugun Itziar Okarizen biografian ere islatzen den zerbait. Baina azter ditzagun honen inguruko datu zehatzak.

34. https://es.wikipedia.org/wiki/Wikimedia_Commons



6. irudia. Wikipedian beren erretratua duten euskal emakume artisten ehunekoak. (2021eko martxoan lortutako datuak)



7. irudia. Wikipedian beren artelanen irudiak dituzten euskal emakume artisten ehunekoak. (2021eko martxoan lortutako datuak)

Bi grafiko horiei erreparatuta, artisten beren argazkien presentzia islatzen duena lehena (6. irudia) eta artelanen irudien ingurukoa bigarrena (7. irudia), garbi ikusten da aipatutakoa. Askoz ohikoagoa da artisten beren argazkiak aurkitzea beren biografietan, artikuluen % 44,8k bat baitute gutxienez, artelanen irudiak aurkitzea baino. Azken horien kasuan, ehunekoa nabarmen jaisten da: % 17,8k soilik dute beren artelanen irudiren bat.

Beharbada, biografiak direnez, enfasi berezia jartzen zaio artistari, baita irudiei dagokienez ere. Eta, ondorioz, garrantzi handiagoa izan dezake editoreentzat sortzaileak berak agertzen diren argazkien txertaketak, haien eransketa lehenetsiz eta, beraz, haien presentzia handituz. Artelanen irudiak, aldiz, bigarren plano batean geratzen dira.

Hala ere, arrazoi nagusia, seguruenik, honako hau da: errazagoa da artisten beren argazki libreak, Wikimedia Commonsera igo daitezkeenak, aurkitzea, artelanenak baino. Artisten erretratu fotografikoen kasuan, haien inguruan egindako erreportaje edo elkarrizketetan irudiak topatzea normala izan ohi da. Eta argazki horietako asko lizentzia libredun komunikabideetan daude eskuragarri³⁵ eta, beraz, Wikimediara igotzeko aukera eskaintzen dute.

Artelanei dagokienez, haien irudiak klik gutxi batzuetan aurki ditzakegu Interneti esker. Gainera, artista garaikideen kasuan, arestian esan bezala, askok berezko webgune edo sare sozialak dituzte arte-sorkuntzak erakusteko, portfolio gisa. Beraz, orokorrean artisten lanen irudi ugari aurki daiteke asko bilatu behar izan gabe eta kalitate onean. Dokumentu horien eskuragarritasuna dela medio, irudi horiek edozein testuingurutan erabil ditzakegula eman dezake edo posible dela arazo handirik gabe gorde, kopia, pegatu, partekatu edo moldatzea. Baina ez

35. *Creative Commons* lizentziak erabiltzen dituzten proiektuak: Euskal Herriko komunikabideak eta prentsa <https://eu.wikipedia.org/wiki/Creative_Commons#Prentsa> (Kontsulta: 2021-09-03).

dugu ahaztu behar irudi horiek sarritan egile-eskubideak dituztela eta, orokorrean, *copyright* bidez babestuta daudela, hau da, Wikimedia Commonsekin bateragarriak ez diren lizentziekin. *Copyright*ak, labur esanda, jabetza artistikoa eta intelektuala babesteko papera du, lanen erabilera mugatu edo baldintzatuz, egilearen nahien arabera. Izan ere, Wikipediak politika zorrotza du bere artikuluen irudiak txertatu ahal izateko. Ezagutza askea defendatzen duen espazioa denez, irudiak gehitu nahi izanez gero, horiek ere askeak izan behar dute. Ondorioz, egile-eskubideak badituzte, arte-testuinguruan gertatu ohi dena, ezinbestekoa da egileen baimena irudiak era askean eskuragarri jartzeko. Horrenbestez, askoz neketsuagoa da lan zehatzen irudiak Wikipedian topatzea edo, zuzenean, Wikipediara gehitzea, eta horrek irudien erabilera eta presentzia zaildu eta murriztu egiten du.



8. irudia. Eulalia Abaitua, izenbururik gabea, c. 1890, Wikipedia.



9. irudia. Ignacia Zabalo, *Argiaren egutegiko azala*, 1926, Wikipedia.

Baina badaude *copyright*ik ez duten irudiak, baita artelanen kasuan ere. Jabetza publikoa duten irudiak dira horiek eta arazorik gabe txerta daitezke Commons-en. Alde batetik, «jabetza publikoaren legearen arabera, orain dela 70 urte zendu ziren pertsonen sortutako lanen egile eskubideak bukatu egiten dira eta, beraz, lan horien jabea gizarte osoa da»³⁶. Horiek dira esaterako Ignacia Zabalo (Donostia, 1905 - Bartzelona, 1939)³⁷ ilustratzailearen eta Eulalia Abaitua³⁸ (Bilbo, 1853-1943) argazkilariaren kasuak.

36. Wikipediak zehaztutako jabetza publikoari buruzko sarrera: <<https://ikusimakusi.eus/2007-2015/eu/tag/jabetza-publikoa/page/1/index.html>> (Kontsulta: 2021-09-03).

37. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Ignacia_Zabalo> (Kontsulta: 2021-09-03).

38. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Eulalia_Abaitua> (Kontsulta: 2021-09-03).

Bestetik, espazio publikoan ikusgai dagoen artea dugu, hau da, horma-irudi, instalazio eta eskulturei norberak egindako irudiak. Espazio publikoan kokatutako lanak direnez, argazkia atera eta Wikipediara igotzeko aukera eskaintzen dute, *libertad de panorama* deritzonari jarraituz eta Estatuko Real Decreto Legislativo 1/1996ko 35.2. artikulua araberaz³⁹. Cristina Iglesias, Irantzu Lekue, Anabel Quincoces eta Dora Salazarren zenbait lan sartuko lirateke kategoria horren barruan (ikus 10. eta 11. irudiak).



10. irudia. Cristina Iglesias, *Forgotten Streams*, 2017, Wikipedia.



11. irudia. Anabel Quincoces, *Argiaren basoa*, 2009, Wikipedia.

Hala ere, kasu batzuetan, irudia Commons-en igota egoteak ez du esan nahi irudi hori Wikipedian erabilia denik. Azken finean Commons-era igotako argazki guztiak ez baitaude artikuluetan txertatuta, eta badaude dagozkien artikulua edo biografietan egotera iristen ez diren irudiak ere. Irudi horiek artistaren biografiarekin harremanetan jarri ez direlako gerta daiteke edo, zuzenean, igotzearen unean argazkia zerekin erlazionatu existitzen ez zelako. Gai horren inguruan egindako ikerketa baten arabera, Commons-en eskuragarri dauden pintura guztietatik % 3 soilik aurki dezakegu Wikipediako artikuluen batean (Navarrete eta Villaespesa, 2021).

Hala ere, tamalez, momentu honetan Wikimediak eta Commonsek eskaintzen dituzten aukera eta erremintek ez dute Euskal Herriko artista eta artearen inguruan dauden irudien kopurua ezagutzea ahalbidetzen. Beraz, ezin dugu jakin biografietan txertatutakoez gain, irudi gehiago existitzen diren, ez baitago irudien sailkapen bateraturik eskuratzeko aukerarik momentuz. Gai honen inguruan egindako ikerketen arabera, artxiboen inguruko antolaketa bat sortzen saiatzeko ahaleginak egin dira, baina, administrazio koordinaturik ez dutenez, mota horretako ekimenak ez dira denboran zehar iraunkorrak. Hortaz, irudien bilaketa, txertaketa eta identifikazioan zailtasunak ekartzen ditu horrek (Tramullas eta Ojeda, 2019: 416).

39. <<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1996-8930>> (Kontsulta: 2021-09-03).
UZTARO 121, 5-30 26 Bilbo, 2022ko apirila-ekaina

5. Ondorioak

Euskal humanitate digitalen garapen-bide honetan, Wikipediak artearen historiari lotutako diskurtso-eraketan eragina izan dezake, artikuluan zehar aztertu dugun moduan. Artearen historiaren kasuan, historia plurala eta ez hegemonikoa sustatzeko eskaintzen dituen aukerak dira azpimarratzekoak, erronkak baditu ere.

Entziklopedia tradizionalarekin alderatuz, haren izaera aske eta kolaboratiboak ezagutza- eta sorkuntza-bide berriak eskaintzen ditu, eta artearen historiaren kontaketa ofizialetik at egon diren emakume artistak gizarteratzeko aukerak zabaltzen ditu.

Hala ere, Wikipediak bere artikuluetarako egokitzapen-irizpide batzuk ere ezartzen ditu, iturri askorik ez dagoen kasuetan gatazkatsuak izan daitezkeenak. Iturriek garrantzi handia dute artikuluen kalitatea bermatzeko, baina, artearen historiak ahaztutako emakume sortzaileen kasuan, ez dira oso ugariak izaten.

Baina, azken urteotan, hainbat ikerketa egin dira euskal testuinguruan artista horiek kontuan hartzen dituen artearen historia zabaldu eta kontatzeko. Ziur asko, ikerketa horiek eragina izango dute Wikipedian ere eta horien emaitzak bertan islatuko dira denborarekin.

Halaber, hizkuntzari lotuta, euskarazko Wikipedian emakume artisten txertaketa arrakastatsua izango dela pentsatzeko arrazoiak dauzkagu. Izan ere, gure hizkuntzan Wikipediako sarrerak areagotzeko joera da nagusi erabiltzaileen artean eta ez dira orokorrean bortizki ezabatzen, beste hizkuntza batzuetan gertatzen den moduan. Gainera, WikiEmakumeok bezalako ekimenen presentzia dugu, non editatzen irakatsi eta emakumeak Wikipedian sartzeko lan nabarmena egiten den.

Euskal sortzaileei dagokienez, Wikipedian haien inguruko informazio zabala aurkitu dugu, bilaketa eta bilketa hein handi batean antolatzen duten zerrenda eta azpikategorietan banaturik. Baina, genero-desparekotasunari dagokionez, artearen historiako testuinguruan dagoen egoera islatzen da eta emakume artista ugariren hutsunea dago. Artikuluan zehar aztertu dugunez, arte-diziplina eta adin-tarte desberdinetan mantentzen den egoera da hori.

Hala ere, izenak falta badira ere, oraingoz euskal emakume sortzaileen inguruko askotariko edukia aurki dezakegu, hainbat diziplinatako, garai desberdinetako eta aintzatespen desberdineko artisten biografiak baititu Wikipediak bere baitan. Zenbaitetan, gainera, informazio hori irudi bidez dago osatua, baina Wikipediak irudiak gehitzeko dituen berezitasunak direla eta, haien presentzia ez da ohikoena.

Horiek horrela, artikulua honetan gauzatutako ikerketa etorkizunera begira baliagarria izatea espero dugu; euskal testuinguruan egindako eta sareko entziklopediako dinamikak ulertzeko lehen saiakera izan baita. Geroaldian euskal emakume artisten eta Wikipediaren arteko harremanetan sakontzeko hainbat aukera dagoela azpimarratu nahi dugu, gai mamitsua izateaz gain, gutxi ikertua baita oraindik ere. Gai hauetan sakontzen jarraitzeko ikerketa-ildo bat proposatzearen, artikuluen iturrien nolakotasunaren azterketan sakontzea aipatuko dugu, biografien sorkuntza

hobeto ulertzeko lagungarria izango baita. Baliatutako informazioaren jakitun izanez, gerora editoreen lana errazteko baliabideak ikertzaileek nola jendarteratu pentsa genezake, azken urteetan berreskuratzen ari diren emakume artistak behar bezala txertatu eta jendarteratzea errazteko.

6. Bibliografia

- Arranz Bombín, Marina (2018): *Performanceak arte bildumetan*, Gradu Amaierako Lana, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, <<https://addi.ehu.es/handle/10810/30144>> (Kontsulta: 2021-08-31).
- Arratibel, Mertxe eta Ramilo, Mentxu (2020): «Wikiemakumeok surgió de un cabreo», *andra.eus*, <<http://andra.eus/wikiemakumeok-surgio-de-un-cabreo/>> (Kontsulta: 2021-08-31).
- Barcenilla, Haizea (2014): «Incluir o replantear: cómo exponer e historizar a las mujeres artistas», *Boletín de Arte*, 35, 117-129 [DOI: <https://doi.org/10.24310/BoLArte.2014.v0i35.3372>].
- Bear, Julia B. eta Collier, Benjamin (2016): «Where are the women in wikipedia? understanding the different psychological experiences of men and women in Wikipedia», *Sex Roles*, 74 (5-6), 254-265 [DOI: <https://doi.org/10.1007/s11199-015-0573-y>].
- Bolufer, Mónica (2014): «Multitudes del yo: biografía e historia de las mujeres», *Ayer*, 93 (1), 85-116.
- De Diego Otero, Estrella (1986): *La mujer y la pintura en la España del siglo XIX. Mujeres pintoras en Madrid (1868-1910)*, Doktorego Tesia, Universidad Complutense de Madrid.
- , (2012): «Feminismo, “queer”, género, “post”, revisionismo...: o todo lo contrario. Ser —o no ser— historiador/a del arte feminista en el Estado Español», in Roberta Johnson eta María Teresa de Zubiaurre (koor.), *Antología del pensamiento feminista español: (1726-2011)*, Cátedra, Madril, 615-622.
- Edwards, Jennifer C (2015): «Wiki Women: Bringing Women Into Wikipedia through Activism and Pedagogy», *The History Teacher*, 48 (3), 409-436, <www.jstor.org/stable/24810523> (Kontsulta: 2021-08-31).
- Gallus, Jana eta Bhatia, Sudeep (2020): «Gender, power and emotions in the collaborative production of knowledge: A large-scale analysis of Wikipedia editor conversation», *Organizational Behavior and Human Decision Processes*, 160, 115-130 [DOI: <https://doi.org/10.1016/j.obhdp.2020.02.003>].
- Haraway, Donna (1988): «Situated Knowledges: The Science Question in Feminism and the Privilege of Partial Perspective», *Feminist Studies*, 14 (3), 575-599.
- Harrison, Stephen (2019): *The Notability Blues. The Wikipedia rule that makes it harder to create entries about lesser-known but important women from history*, <<https://slate.com/technology/2019/03/wikipedia-women-history-notability-gender-gap.html>> (Kontsulta: 2021-09-03).
- Iraguen, Oihane (2017): «Ziberfeminismoa, politika identitarioen desegite eta berregitea», *Ausart*, 5 (1), 11-23 [DOI: <https://doi.org/10.1387/ausart.17801>].
- Izaga Gonzalez, Xabier eta Barrena, Marisa (2021): «Wikipedian motibazio bikoitza daukat: genero arrakala murriztea eta euskaraz editatzea», *Naiz*, <<https://www.naiz.eus/en/info/noticia/20210219/wikipedian-motibazio-bikoitza-daukat-genero-arrakala-murriztea-eta-euskaraz-gehiago-editatzea>> (Kontsulta: 2021-08-31).

- Lopez Landabaso, Patricia (2016): *La performance como medio de expresión artística. Expresiones actuales en el País Vasco*, Doktorego Tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, <<https://addi.ehu.es/handle/10810/18797>> (Kontsulta: 2021-08-31).
- Lekuona Mariskal, Ane (2019): «Euskal imaginario artistikoa genero-ikuspegi batetik, 1966-2016», *Aldiri: arkitektura eta abar*, 38, 10-13.
- , (2020): «La historiografía del arte del País Vasco. Una revisión feminista a la segunda mitad del siglo XX», *Historia Actual Online*, 51, 141-152 [DOI: <https://doi.org/10.36132/ha0.vi51.1859>].
- Mayayo, Patricia (2013): «Después de Genealogías feministas. Estrategias feministas de intervención en los museos y tareas pendientes», *Investigaciones Feministas*, 4 [DOI: http://dx.doi.org/10.5209/rev_INFE.2013.v4.41875].
- Minguillón, Julià *et al.* (2021): «Exploring the gender gap in the Spanish Wikipedia: Differences in engagement and editing practices», *PLoS ONE*, 16 (2) [DOI: <https://doi.org/10.1371/journal.pone.0246702>].
- Navarrete, Trilce eta Villaespesa, Elena (2021): «Image-based information: paintings in Wikipedia», *Journal of Documentation*, 77 (2), 359-380 [DOI: <https://doi.org/10.1108/JD-03-2020-0044>].
- Nochlin, Linda (2021): *Why Have There Been No Great Women Artists?*, Thames & Hudson, Londres (Lehenengo bertsioa 1971n argitaratu zen).
- Rodríguez, Natxo (2008): *Artes visuales y cultura libre. Una aproximación copyleft al arte contemporáneo*, Doktorego Tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- , (2021): *Artea eta kultura librea: jardunbide artistikoaren esparruko kultura librearen eta lizentzien hastapenak*, UPV/EHko ADDI gordailua, <<https://addi.ehu.es/handle/10810/52081>> (Kontsulta: 2021-08-31).
- Tramullas, Jesús eta Ojeda, Rubén (2019): «Fondos documentales para el estudio de la historia de la fotografía en Wikimedia Commons», in Lázaro Sebastián, Francisco Javier eta Hernández Latas, José Antonio (zuz.), *II Jornadas sobre investigación en historia de la fotografía. 1839-1939, un siglo de fotografía*, Institución de Fernando el Católico, Zaragoza, 407-418, <https://www.researchgate.net/publication/336720259_Fondos_documentales_para_el_estudio_de_la_historia_de_la_fotografia_en_Wikimedia_Commons> (Kontsulta: 2021-08-31).
- Wadewitz, Adrienne (2013): «Wikipedia is pushing the boundaries of scholarly practice but the gender gap must be addressed», *Impact of Social Sciences Blog*, <<http://eprints.lse.ac.uk/72040/>>.
- Wagner, Claudia *et al.* (2016): «Women through the Glass Ceiling: Gender Asymmetries in Wikipedia», *EPJ Data Science*, 5 (1), 1-24 [DOI: <https://DOI.org/10.1140/epjds/s13688-016-0066-4>].

8. Oharrak eta eskerrak

Ikerketa hau UEUk eta EWKEk emandako «Humanitate digitalen inguruko euskarazko ikerketa sustatzeko deialdia 2020» laguntzari esker burutu dugu. Zehazki, *EMARTISTAK 2000-2020: Wikipedian euskal emakumezko artisten presentziaren analisia eta ikusgaitasun interbentzioa* ikerketa-proiektuaren barnean garatu dugu artikulua. Gure esker ona eman nahi diegu prozesuan lagundu diguten kideei: Xabier Landabidea zein Galder Gonzalezi Humanitate Digital eta Wikipediaren esparrutik emandako aholkuengatik; Natxo Rodriguezi artean irudien garrantziaren inguruan hausnartzen laguntzeagatik.

Artikuluaren ikerketa- eta idazketa-prozesuan zehar, bi autoreek era berdintsuan hartu dutela parte adierazten dugu.

